



---

**ALDEZ AURREKO KONTSULTA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN URTEBETE BAINO GEHIAGO BIZI DIREN 65 URTE BAINO GEHIAGOKO PERTSONENTZAKO ZUZENEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ONESTEN DITUEN FORU DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA**

Bat etorritz xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak I. eranskinaren 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuaz, kontsulta publikoa egin behar da goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariak handieneko erakundeei, honako gai hauei buruz:

- a) ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak
- b) onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) arauaren helburuak
- d) ordezeko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, informazio publikoa emateko prezio publikoen arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariak duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2019ko martxoaren 22ra arte, [aurrezkontsultak@araba.eus](mailto:aurrezkontsultak@araba.eus) helbide elektronikoko postontziaren bidez.

<b>AURREKARIAK</b>	Dirulaguntza lerro berria da; beraz, ez dago aurretik araututa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 33/2013 Foru Araua aldatu zuen urtarrilaren 16ko 1/2019 Foru Arauak sortu zuen.
--------------------	--



<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	<p>Arabako Lurralde Historikoan bizi diren 65 urtetik gorako pertsonentzako zuzeneko dirulaguntzen azken helburua da hasierako bi milioi euroren zenbatekoa modu bidezkoan banatzea.</p> <p>Baina erantsi beharra dago dirulaguntza horiek sortzea eragin zuen zuzenketa Orain Araba batzarkide talde mistoak egin zuela eta, talde horren iritziz, laguntza horiek beharrezkoak direla pentsiodun askok ez duelako kenkariak aplikatzeko eskubiderik, adinagatiko kenkaria nahikoa irabazten duten herritarrek bakarrik aplikatzen dutelako, eta dituzten atxikipenek hori ahalbidetzen dietelako.</p>
<b>ONARTU NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA</b>	<p>Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 33/2013 Foru Araua aldatu zuen urtarrilaren 16ko 1/2019 Foru Arauak, azalpenen zatian, xedatzen du aldaketek 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dutela eragina.</p>
<b>HELBURUAK</b>	<p>Onestea Arabako Lurralde Historikoan bizi diren 65 urtetik gorako pertsonentzako zuzeneko dirulaguntzen oinarri arautzaileak.</p>
<b>ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK</b>	<p>Kontuan hartuta 1/2019 Foru Arauaren hirugarren artikulua behartu egiten duela Arabako Foru Aldundia jaiotzeengatiko dirulaguntza lerro bat sortzera, dirulaguntza horiek Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretu baten bidez arautzeko proposamena da posible bakarra.</p>